

## **2006ko OTSAILAren 20ko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, bi mila eta seiko otsailaren hogeian, goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **“LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA”k IZANDAKO FUNTSEZKO ALDAKETEN ONARPENERAKO PROPOSAMENA**

Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Lehen Onarpena, jendaurrean egon den epealdian, hainbat alegazio jaso dira.

Pilar Azurmendi Etxegarai Arkitektoak, alegazio hoiak aztertu ondoren, A-1-3, A-2, A-4-6 eta A-7 Industrialdeko eremuetan hainbat funtsezko aldaketa egitea proposatu du.

Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenari eginiko aldaketei buruzko txostena aztertu eta eztabaidatu ondoren, zera proposatu da:

- 1.- Lizartzako Udalak aurkeztutako, Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspeneko A-1-3, A-2, A-4-6 eta A-7 Industrialdeko eremuetarako proposatu diren aldaketak onartzea.
- 2.- Aldaketa hoiak jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta probintzian gehien hedaturiko egunkarian argitaratzen den azkeneko datatik kontatuko delarik.

Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspeneko A-1-3, A-2, A-4-6 eta A-7 Industrialdeko eremuetarako proposatu diren aldaketei onarpena ematea, gehieneko absolutuaren “quorum”arekin, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, goizeko zortzi t’erdiak direnean.